

2

Revista
de Estudios
Marítimos
del País Vasco

ITSAS
intemarisa

U·M

UNTZI MUSEOA · MUSEO NAVAL
Donostia · San Sebastián



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Sarrera

Ontzigintza da Itsas Memoriako bigarren ale honen gai nagusia. Izen ere, jakin badakigu Euskal Herriko kostaldean ontzigintzak berebiziko garrantzia izan duela berant erdi aroaz geroztik, jarduera horrek gizartean, ekonomian zein kultura mailan eragin nabarmen-nabarmena izan duen arren, oraindik ez da gai horren inguruko ikerketa lan sakon eta zabalik egin.

Julio Caro Baroja bera ere kexu zen Deustuko Unibertsitatean 1973. urtean egin zen Euskal Antropologiaren Nazioarteko III. Astean; azaldu zuenez, ikerlariek ez zioten ontzigintzari inolako jaramonik egiten nahiz eta gai horrek berebiziko garrantzia izan, eta lotsagarritzat jo zuen arlo hori ikertzeko eta dokumentuak arakatzeko interesik eza (Nazioarteko III. Astea..., Bilbo, 1976, 343-348 or.). Harrezkero, historialariek eta etnografoek arreta handiagoa eskaini diote Euskal Herriko ontzigintzari, baina oraindik ere esparru horretako bibliografia nahiko urria da eta, salbuespenak salbuespen, ez da aparteko lanik argitaratu.

Nolanahi ere, egin diren azken ikerketek lehendik susmatzen genuena berretsi digute, ontzigintzak berebiziko garrantzia izan zuela, alegia, bai ekonomian eta bai teknologiaren alorrean. Izen ere, Bizkaiko Golkoa punta-puntan baitzegoen Europa mailan ontzigintzako teknikari dagokionez, eta ideia hori gero eta indar handiagoa hartzen ari da poliki-poliki. Chaunutarrek frogatu zutenez, itsaso zabaletan barrena egindako bidaietan espiniarrek erabili zituzten ontzi asko eta asko Gipuzkoan, Bizkaian eta Kantabrian egindakoak ziren; Chaunutarrek urratutako bideari jarraituz, azterlan berrieik ere lurralte txiki honetako biztanleek ontzigintzaren alorrean izan zuten garrantzia nabarmendu dute, bai kopuruari dagokionez eta bai kalitateari dagokionez ere, bereziki erdi aro berantiarrean eta aro modernoan. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar —José Luis Casadok behin eta berriz azaldu duen bezala— ontzigintza izango zela, hain zuzen ere, garai haietako teknologien artean konplexuena eta zailena.

Itsas Memoriako ale hau osatzen duten ontzigintzari buruzko 22 artikuluak, heterogeneoak dira ikuspuntu eta metodologiari dagokionez (historia ekonomikoa, teknikaren garapena, arkeologia, etnografia eta beste hainbat gai hartzen dituzte) eta oso lagungarriak izango zaizkigu ontzigintzaren esparru zabal hori hobeto ezagutzeko; aurrerantzean ere bide hori urratzen jarraitzea gustatuko litzaiguke.

«Museoa eta bere fondoak» izeneko atala Untzi Museoa 1991. urtean ireki zenetik berreskurtatu diren itsasontziei buruzkoa da oso-osorik, beraz, aldizkariaren gai nagusiaren osagarri edo eranskintzat har dezakegu. Museoak ondarea babesteko egin dituen lanen artean arreta berezia eskaini dio ontziak berreskuratzeko lanari, gure kostaldeko itsasontziek tipologiari eta eraikitzeoko moduari dagokionez izan duten garapenaren eredu genituenak desagertzar baitzeuden. Museoan dauden 21 ontzietatik 11 zehatz-mehatz aztertu ditugu atal horretan.

Aldizkariaren hirugarren atalean —«Hainbat ikerlan»— zazpi artikulu bildu ditugu era askotako gaiei buruzkoak eta aurrekoekin batera Euskal Herriko itsas historiaren puzzle hori osatzen lagungarri izango ditugu, nahiz eta oraindik ere hamaika atal falta zaizkigun bilatu eta dagokion txokoan jartzeko.

José M^a Unsain Azpiroz
Airu Zerbitzu Kulturalak
Untzi Museoa-Museo Naval

Introducción

La construcción naval es el tema central de este segundo número de *Itsas Memoria*. La intensa actividad desplegada por los habitantes del litoral vasco en la fabricación y armamento de naves desde la Baja Edad Media es una realidad histórica que, pese a su indudable atractivo y trascendencia socioeconómica y cultural, no ha dado origen a una investigación sólida y extensa.

La escasa atención prestada por los investigadores a la construcción naval ya fue puesta de relieve por Julio Caro Baroja en el transcurso de la III Semana Internacional de Antropología Vasca celebrada en la Universidad de Deusto en 1973. Haciendo hincapié en la «importancia extraordinaria del tema», Caro llegó a tildar de «vergüenza» la falta de interés por la investigación y la recopilación de documentos en este campo (III Semana Internacional..., Bilbao, 1976, pp. 343-348). Aun cuando en los últimos años la industria naval vasca ha sido objeto de mayor atención por parte de historiadores y etnógrafos, se ha de reconocer que la bibliografía generada al respecto ni es abundante ni, salvo excepciones, ofrece gran entidad.

En cualquier caso las investigaciones recientes vienen a confirmar la enorme relevancia del tema tanto en el plano económico como en el tecnológico. Paulatinamente se va consolidando la noción de que el Golfo de Bizkaia fue un destacado foco del progreso técnico europeo en materia de construcción naval. Avanzando en la senda abierta por los Chaunu al demostrar que un altísimo porcentaje de los buques que participaron en la aventura oceánica española fueron fabricados en las costas de Gipuzkoa, Bizkaia y Cantabria, los nuevos estudios contribuyen a resaltar cuantitativa y cualitativamente el papel desempeñado en el ámbito de la manufactura naval por los pobladores de ese reducido espacio geográfico, especialmente en los tiempos bajomedievales y durante la Edad Moderna. Ha de tenerse presente además —tal como ha señalado en repetidas ocasiones José Luis Casado— que la construcción naval fue posiblemente la tecnología más compleja y sofisticada de las existentes en dicho periodo histórico.

Los 22 artículos sobre construcción naval que dan cuerpo a este número de *Itsas Memoria*, heterogéneos en enfoque y metodología (historia económica, evolución técnica, arqueología, etnografía, etc.), constituyen una aportación al conocimiento del tema que esperemos tenga continuidad en sucesivas entregas.

La sección denominada «El Museo y sus fondos» está dedicada íntegramente al patrimonio flotante recuperado por el Untzi Museoa-Museo Naval desde su apertura en 1991, por lo que bien puede considerarse como complemento o extensión del bloque central de la revista. La recuperación de embarcaciones ha sido el campo de protección patrimonial al que el Museo ha prestado mayor dedicación, dada la coyuntura de inminente desaparición de unidades representativas de la evolución tipológica y constructiva de los barcos de trabajo de la costa vasca. En dicha sección se estudian con detenimiento 11 de las 21 embarcaciones que integran los fondos del Museo.

El tercer bloque de la revista, denominado «Investigaciones diversas», reúne siete artículos de amplia variedad temática que componen con los anteriores una contribución al trabajo de reconstrucción del gran puzzle que constituye la historia marítima vasca, puzzle en el que todavía son muchas las piezas que faltan por localizar y encajar.

José M^a Unsain Azpiroz
Airi Zerbitzu Kulturalak
Untzi Museoa-Museo Naval